

Prentsa oharra

Nota de prensa



NORMAL IZANGO DA SANTU GUZTIEN EGUNA HILERRIETAN AURTEN, BAINA ZENTZUZ.

Osasun egoerak hobera egin du eta nolabaiteko normaltasun bat itzuli zaigu eguneroko bizimodura; eta, beraz, baita hilerrietara ere. Hala, joan den urteko murrizketak pasatu eta gero, zentzu komuna beste neurririk ez da izango aurtan Santu Guztien Egunerako.

Hiri Mantentze Lanetako zinegotzi Miguel Angel Diez sozialistak adierazi du egia dela aurtengo egoerak ez duela iazkoaren antzik, baina azkeneko egun hauetan ugaritu egin direla kutsatutako pertsonak. Hala eta guztiz ere, udal hilerriek ez dute muga berezirik izango azaroaren 1ean aurtan; baina zentzuz ibiltzeko esaten dugu, lehenago joateko kanposantura eta jende asko ez pilatzeko maite ditugun pertsonen hilobi eta panteoien inguruan. Baldintza txiki horiek betez gero, arazo handirik gabe ospatu ahal izango dugu gure kulturen sustraituta dagoen ohitura hau: maite ditugun pertsonen oroimenari ohore egitea.

Donostiako hiru hilerriak, Polloekoa, Altzakoa eta Igeldokoa, irekita izango dira, hara joan eta tradizioa bete nahi duten guztientzat. Udaltzaingoak egingo du, urtero bezala, zaintza eta kontrol lana; auto edo jende pilaketa handirik ez izateko. Hileta-zerbitzuak kudeatzen dituen sailak, berriz, aurtan ere iazko portaera eredugarria izateko eskatzen die herritarrei.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Hilerriera Santu Guztien eguna baino lehen joatea, adibidez, ez da erabaki txarra aglomerazioak eta, horrekin batera, kutsatzeko arriskurik ez izateko. Hilerriak urte osoan egoten dira irekita, ordu hauetan:

Ordutegiak	
Apiriletik urrira	Egunero: 08:00etatik 20:00etara
Azarotik martxora	Egunero: 08:00etatik 19:00etara

Gainera, Polloeko hilerriko **nitxoan gunea** 08:00etatik 13:30era irekita izango da urriaren 25etik urriaren 29ra arte, eta 08:00etatik 18:00etara urriaren 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean.

GARRAIO PUBLIKOA

Polloek garraio publikoan joatea gomendatzen du, autobus linea hauetan:

- Polloe: Ordutegia: 09:00etatik 20:00etara. 9, 24, 27, 41 eta 42 autobus lineak
- Altza: Ordutegia: 09:00etatik 20:00etara. 13, 24, 27, 31 eta 38 autobus lineak
- Igeldo: Beti irekita. 16. autobus linea.

LORADENDAK

Urriaren 25etik azaroaren 1era, loradendek loreak hilerrian partitzeko ordutegia 07:30etik 10:00etara izango da.

KULTUR EKINTZAK

“Heriotzari bizitza ematea: heriotzak inporta duelako” II. jaialdia izango da urriaren 28tik (osteguna) azaroaren 1era (astelehena). Musika-emanaldi batzuk egingo ditu Donostiako Musika eta Dantza Eskolak, Polloeren lankidetzarekin.

Ekitaldia 12:00etatik 13:00etara izango da, hilerriko toki batzuetan (www.dandovidaalamuerte.org).

Gainera, azaroaren 2an, asteartea, hildakoen meza ospatuko da Polloeko kaperan, 120 lagunentzako edukiera mugatuarekin.

Prentsa oharra

Nota de prensa



HOBKUNTZAK HILERRIETAN

Aurten, berrikuntzetako bat Altzako hilerriko sarbidea hobetzea izan da. Beste era batera antolatu da espaloia eta autoentzako aparkalekuaren arteko tokia, eta orain ez da lehen zen egoerarik, autoak nagusi baitziren lehen.

Datozen hilabeteetan Errautsen lorategiaren proiektuari berriro ekiteko asmoa dago, pandemiaren ondorioz atzeratutako inbertsioa baita. Polloeko hilerrian lehen hobiak ziren lekuan izango da lorategia. Herritarren beharrei erantzuteko tokia izango da, familiakoen errautsak ingurune atsegin eta jasangarrian atseden hartzeko.

Proiektu hori gauzatu arte, 120 kolunbario jarri ditu errautsentzat kanposantuko San Isidro kalean Polloek.